


# ABA TXIKI -ren

eskutik:

M. Delage, C. Debussy,  
J. López Montes


# ¡SOY SALVAJE!



♪ Gida didaktikoa ♪



## Aurkibidea



Ikuskizun... basatia!	..... 3
Gorilak...	..... 5
...eta neskato basatiak!	.....10
Oso hitz luzea	.....12
«La maquiné» konpainia	.....15
Musika basatiak ... eta ez hain basatiak	.....17



Haurrentzako testuak tamaina handiagoan idatzita daude, eta aurretik ikur hau daramate.



Helduentzako testuak, testuingurua eransteko, ikur hau daramate aurretik. Informazio hori haurrekin parteka dezakezue, nahi izanez gero.



## Ikuskizun... basatia!



Gustatuko litzaizuke oihanean bizitzea? Zuhaitzetatik zintzilikatzea? Eskolara joan behar ez izatea!!! Baina, noski, agian zure guraso eta lagunen falta sumatuko zenuke... Nolanahi ere, oihaneko bizimodua nolako litzatekeen jakin nahi baduzu, jakin-mina eragiten baduzu, hemen duzu istorio txundigarri bat, Koko gorilari eta Mona neskatoari buruzkoa, oihaneko bizilagunak biak ere. Mundua nola ikusten duten jakin nahi duzu? Zein harreman dituzten beste animalia batzuekin? Egia esan, nahiko ondo moldatzen dira... bat-batean zarata misterioitsu batzuek ikaragarritzko abentura bizitzera bultzatuko dituzten arte. Zatoz txotxongilo, maskara eta zuzeneko aktoreen ikuskizun hau ikustera, «¡Soy Salvaje!» izenekoa eta zuzeneko musikaz lagundua. Bidaia honetan gidatzeko eta laguntzeko, ikur honekin adierazitako paragrafoak irakur ditzakezu. Ziur askoz gehiago gozatuko duzula emanaldiaz, ikusten ari zarena berehala ulertuko baituzu. Zatoz gurekin istorio harrigarri hau bizitzera!



Gogoratu antzoki batera joango zarela. Beraz, ez ahaztu aktoreek eta musikariak, beren onena eman ahal izateko, zure laguntza behar dutela, hau da, arreta jartzea eta isilik egotea. Horrela, kontatuko dizuten istorioaren xehetasun guzti-guztiak ezagutuko dituzu.

Ikuskizunean, bi protagonistak aire zabalean bizitzen ikusiko dituzu, zuhaitz eta animalia artean, guretzat ohikoa den egunerokotasunaz bestelakoan. Naturarekin konektatzeko denborarik ez dugun garaian, egokia da gogoratzea gure baitan gure senik jatorrenetakoekin bat egiten gaituen funtsezko esentzia daramagula, arakatzera, ikertzera, kuxkuxeatzera... bultzatzen gaituena; laburbilduta, ezagutzen ditugun mugez harago joatera eta inguratzen gaituen munduarekiko gure ikuspegia zabaltzera garamatzan hori.

Obra bi aktorek antzeztuko dute; antzerki, maskara, txotxongilo eta proiektzioen bidez, ordubetez oso istorio biziak gozatu ahal izango duzu, eszenatoki gainean teknika ugari ikusiz, denak ere pianista batek, txirulari batek eta abeslari batek interpretatuko duten musikaz lagunduta. Talde-lan bikaina, zalantzarik gabe harritu egingo zaituena, aldi bakoitzean desberdina baita!

Joaquín eta Elisa sortzaileek asmatu dute ikuskizuna, animalia oso adimentsu baten benetako kasuan eta hark gizakiekin bizi izan zuen esperientzian oinarrituta. Gainera, ezagunak izango zaizkizun beste istorio batzuen erreferentziak erantsi dituzte.



Gure kontakizunaren alde ona da hitzik gabea dela eta protagonistak keinu edo soinuen bitartez komunikatzen direla. Hala ere, ez kezkatu: primeran ulertuko duzu eta, badaezpada, hemen eduki batzuk errepatatuko ditugu antzokian esperientzia hau hasieratik amaierara goza dezazun.



La Maquiné konpainiaren zuzendariak Joaquín Casanova eta Elisa Ramos dira, gazteentzako ekoizpenetan ibilbide luzea dutenak. Hainbat sari jaso dituzte, arte eszenikoen MAX saria, kasu. Haien obrak, dramaturgia izugarri originalekoak, gazteentzat eta familientzat dira, eta bertan darabilten hizkuntza plastikoagatik, keinu bidezkoagatik eta musikalagatik nabarmentzen dira. Txotxongilo eta objektuen antzerkia, antzerki fisikoa, keinu bidezkoa eta maskarena landu ohi dituzte, XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen hasiera bitarteko musikaren bidez, hainbat konpositoreren musika-errepertorio baliotsuak eszenaratu. Konpainia honen sorkuntzek begirada garaikidea dute, eta arte plastikoak komunikaziorako eta dramaturgia garatzeko tresna gisa erabiltzen ditu, bai haurrak bai helduak gogoan betiere.

## Gorilak...



Gure eguneroko bizimoduan, etxeko animalietara ohituta gaude: katuak eta txakurrak, nagusiki, baina jakingo duzu badirela beste animalia batzuk ezin dutenak gurekin herri eta hirietan bizi, aske eta gizakiaren mende egon gabe bizitzera ohituta daudelako. Animalia basati esaten diegu, eta, argazki honi begiratzen badiozu, ziur batzuk ezagutuko dituzula.



*Zenbat animalia izena dakizu?*

*Adierazi ahalik eta gehien.*

ANIMALIA BASATI esaten diegu eta gu bizi garen eremuetatik urruneko tokietan bizi dira. Istorio honetako protagonistetako bat horrelako animalia bat da, guztien artean dezenteko adimena duen animalia-familia batekoa delako nabarmentzen dena. Gorilez ari gara.



Jane, Diane eta Birute zientzialari oso ezagunek bai gorilak bai haien beste senide batzuk, tximinoak eta txinpantzeak, aztertu zituzten. Eta ikertu zituzten gurekin antzekotasun asko dituzten animalia horien adimena neurtzeko, beste gauza batzuen artean. Bada, zientzialari horietako batek gorila eme berezi bat ezagutarazi zion munduari, Koko, eta gure istorioko protagonista harengan oinarrituta dago.


## KOKO



Gorilak tamaina handiko animaliak dira, taldetan bizi ohi dira eta, gu bezala, beren espezieko beste animalia batzuekin harremanetan egoten dira. Eta nahiz eta gorilak animalia beldurgarri gisa deskribatu diren, oro har errespetua izan behar zaie, bizileku duten lurraldea kontrolatzea atsegin dutelako. Ez dira fidatzen hurbiltzen zaizkien arrotzez. Dena den, gure istorioko protagonista Estatu Batuetan bizi izan zen gorila eme batean oinarrituta dago. Ezagut ezazu Koko!



Francine izan zen Kokori irakatsi nahi izan zion zientzialaria, gorila emeak, eremu itxi batean hazi zenak, hau da, ez oihanean, nabarmen erakutsi baitzuen esaten zitzaiona ulertzen zuela. Francinek, pazientziatz eta urte luzez, zer nahi edo behar zuen zeinuen bidez adierazten erakutsi zion. Denborarekin, Kokok 2.000 hitz ikasi zituen, eta horrexegatik izan zen oso animalia berezia. Kokok egindako gauzarik harrigarriena izan zen izendatzen ez zekien objektuak deskribatzea eta ezagutzen zituen hitzak LOTUZ beste era batean izendatzea. Berehala, haren irudia mundu osoan zabaldu zen.



Ezetz asmatu nor ageri den KOKO irakurtzen ari den liburuaren azalean?



Francine Patterson doktorea izan zen Kokori hizkuntzarako zituen trebetasunak erakutsi zizkion biologoa. Kokok zer nahi zuen eta zer ez adierazten ikasi zuen, eta, denborarekin, baita sentimenduak eta gogoaldarteak ere. Adibidez, «hatz» eta «eskumuturreko» hitzak erakutsi zizkioten, baina ez «eraztun». Kokok bere zaintzailea eraztun batekin ikusi zuenean, seinalatu eta «hatzeko eskumuturrekoa» zela esan zuen.


Kokok, Kaliforniako zoo batean hazita ez zuenez ez bikotekiderik ez kumerik izan, maitasun handia hartu zien katuei. Haietako batekin oso harreman berezia izan zuen, ia ama-semeena. Katua auto batek harrapatuta hil zenean, Kokok triste zegoela adierazi zuen, bere lagun «Bolatxo» ez zuelako berriz ikusiko. Kokok bizitza luzea izan zuen (1971-2018)



Kokok ikasi zituen zeinu ugarien artean, unibertsalenak oinarrizko funtzio fisikoekin lotutakoak dira. Baina oso deigarria da, gainera, beste kontzeptu batzuk gizakiekin lotu izan direla beti, eta Kokok erakutsi zigun animaliek oso antzera sentitzen dutela. Hemen dituzu Kokok komunikatzeko erabiltzen zituen oinarrizko zenbait zeinu. Egingo dituzu zure esku eta besoekin? Fisikoen artean, honako hauek ditugu:



GOSEA



JAN




KILIMA

Kontzeptu landuago eta abstraktuagoen artean;





BARKAMENA



MAITASUNA

*Kokorekin eta zeinuekin lotutako jarduera asko eta asko haren ingelesezko webgunean topa ditzakezu, haurrentzako jardueretarako berariaz diseinatuan. Sakatu esteka:*

[\*Kids4Koko Home - The Gorilla Foundation\*](#)


Gure ikuskizunean, Koko Noé Lifona aktore eta titiriteroak antzeztuko du:







## ... eta neskatila basatiak

Gure istorioko beste protagonista neskato bat da... basatia! Badakizu nor diren «ume basatiak»? Ez, ez dira geldirik egon gabe hara eta hona dabiltzan haurrak! Irakurtzen jarraitu aurretik, galdetu zure inguruko helduei kasuren bat ezagutzen duten edo «ume basati» esamoldeak zer esan nahi duen ere badakiten.



Literatura unibertsalean, badaude halako haur berezien hainbat adibide ospetsu. Agian, irudiren bat ikustean edo liburuaren izenburua irakurtzean, jakingo duzu esamoldea bere esanahiarekin lotzen:



Izan ere, filmak izan aurretik bi istorio horiek eleberri famatuak izan ziren, marrazki bizidunak iritsi baino lehenagoko haur-belaunaldi ugari irakurri zituztenak. Ume basati istripu baten edo beste ustekaberen baten ondorioz natura betean gizakiengandik urrun hazi diren haurrei esaten diegu. Beste gizaki batzuekin inolako harremanik izan gabe biziraun behar izan dute, eta beste animalia batzuek berezkoagoak dituzten gaitasunak garatu dituzte, beti pertsonekin lotzen ditugunak garatu gabe. Gure ezaugarrietako asko talde-harremanak ditugula aintzat hartuta definitzen dira; beraz, ume basatiek ez ohi dituzte ohitura horiek izaten.



Eta badira kasu interesgarriagoak ere: guraso batzuk Afrikara joan ziren lanera eta alabak ere eraman zituzten, eta neskatilak honen modu txundigarrian egon ziren harremanetan animaliekin. Sakatu esteka!

[Tippi, la verdadera niña de la jungla](#)



«Tarzan» Edgar Rice Burroughs-en (1875-1950) hainbat liburutan agertu zen 1912 eta 1965 bitartean, eta liburuok hasieran ez zeuden haurrentzat pentsatuta. Mowgli umea Rudyard Kipling-ek (1865-1936) idatzitako beste eleberri batzuetan agertu zen, generikoki «Oihaneko liburua» izendatueta. Fikziozko kasu horiez gain, garaiko egunkari eta aldizkari zientifikoek, baita helduentzako filmek ere, gurasoen heriotza goiztiarraren ondorioz bakarrik edo ia bakarrik hazitako zenbait haurren aurkikuntzak islatu zituzten. Istorio horien artean, «L'Enfant sauvage» (mutiko basatia) filma (1970) nabarmentzen da, François Truffaut zuzendari frantziarrarena (1932-1984).



## MONA




Gure istorioko neskatokak Mona du izena, eta ikuskizunaren hasieran Koko gorilarekin egingo du topo oihanean. Animaliak neskatila haziko du eta denborak aurrera egin ahala nerabe bihurtzen ikusiko dugu, oihaneke bere etxetik gertu agertuko diren hainbat animaliarekin harremanetan sartuta. Mona Ángela Cáceres aktore eta titiriteroak antzeztuko du.

Elkarrekin, Monak eta Kokok beren ingurunean emango dituzte egunak, beren etxean... harik eta, halako batean, oihanean zarata ozen-ozenak



entzuteaz batera arazoren bat dagoela edo zerbait arraroa gertatzen ari dela pentsatzen hasiko diren arte... Ausartuko zara zer edo nor agertuko diren irudikatzen? Ez da zaila!



Monari, oso izaki bitxiak iruditzen bazaizkio ere, atentzio handia ematen diote... eta horixe izango da abentura paregabe -eta arriskutsu- honen hasiera; espero dezagun gure protagonistentzat ondo amaitzea... Anima zaitetz antzerkian jakitera!

## Oso hitz luzea

Monaren eta Kokoren arteko harreman politaz gain, gure obrak azken urteotan oso garrantzitsua bihurtu den gai bat du hizpide. Baina, izendatzeko, oso hitz luzea erabiltzen dugu, sei silabakoa!


Hari buruz irakurri aurretik, jakingo zenuke hieroglifiko honen bidez asmatzen?

(OHARRA! Ez da erraza!!!) Pista batzuk emango dizkizugu. Hitza hiru zatitan



banatu dugu (silaba 1 + 3 silaba + 2 silaba) eta beren esanahiaren arabera multzokatuta daude:

- 1 Lehenengo silaba aurrizki baten lehen bi hizkiak dira (hiru ditu guztira), jarraian datorren guztiaren kontrakoa esan nahi duen aurrizkiarenak.
- 2 Erdiko irudia «baso» esateko ingelesezko hitza da, amaieran -a erantsita.
- 3 Azken 2 silabek, batuta, «arrazoi» hitzaren sinonimo bat osatzen dute.




Hitza DEFORESTAZIO da, eta gizakiak naturan egiten duen ekintza bat deskribatzeko erabiltzen dugu: funtsean, zuhaitzak moztean eta paraje naturalak desagerraraztean datzan ekintza, naturako baliabideak modu berekoian eta planeta oso gutxi errespetatuz ustiatzeko.

Gogoratu baso handiak eta oihanak oso garrantzitsuak direla, bi arrazoi nagusirengatik:

I- Aipatu ditugun animalia basatien bizilekua dira. Suntsitzen baditugu, bertan betidanik bizi izan diren animaliei etxea kentzea bezala da.





2-Baina, aldi berean, geure burua kaltetzen dugu. Gogoan izango duzue landareak eta zuhaitz handiak planetako arnasketa-sistemaren osagai nagusia direla: landareek eta zuhaitzek aireko karbono dioxidoa (CO<sub>2</sub>) xurgatu eta araztu egiten dute, eta guri oxigenoa itzultzen digute; beraz, haien kopurua ez murrizteak berebiziko garrantzia du planetako aireak garbia izaten jarrai dezan.





## «La maquiné» konpainia



Lehen esan bezala, Joaquín eta Elisaren konpainiak txotxongilo, maskara eta proiektzioekin lan egiten du aspalditik, baita aktore-manipulatzailleekin ere, jakina, haiek mugiarazten baitituzte txotxongiloak, bizirik daudela diruditenak!



«La maquiné»-ren beste ikuskizun bateko irudi hauetan, hobeto ikusi ahal izango duzu manipulatzailleek egiten duten lana... ez da batere erraza!

«¡Soy salvaje!» obrarako, lan handia egin dute txotxongiloekin (Mona haurtxoa denean, animaliak, gizakien maskarak...), eta ikuskizunerako prestatuko zaituzten argazki batzuetan ikus ditzakezu.



Konturatuko zinen aktoreek gizakiak antzezten dituztenean, zibilizazioaren barruan, maskara zuriak daramatzatela. Badakizu zergatik? Ausartuko zara teoria bat azaltzen? Bestela, galdetu zure inguruko helduei.





“¡Soy salvaje!” ikuskizunean, giza maskarek gogoeta egitera gonbidatzen gaituzte, gizarteak askotan inposatzen dizkigun arau eta ereduen ondorioz denok berdinak dirudigula hausnartzera. Maskara horien bidez, “La Maquiné”-k gure benetako esentzia gal dezakegula erakusten digu, sailkatzen gaituzten eta gure benetakotasunetik urruntzen gaituzten arau horiei jarraitzen badiegu. Baina pertsona bakoitza bakarra eta desberdina da, eta aniztasun horrek egiten gaitu benetan bereziak. Gure “ni basatia” berreskuratzeak gu geu izatea dakar berekin, askatasunez, desberdinak izateko beldurrik gabe eta gainerakoen desberdintasunak errespetatuz.



## Musika basatiak... eta ez hain basatiak!



Jakin duzu oihanek eta basoek beren berezko musika dutela? Noski, bertan ez dago musika-instrumenturik bere horretan! Alabaina, landareek eta animaliek, izaki bizidun horiek, oso soinu bereizgarriak dituzte; seguruenik, ez zaizkizu arrotzak egingo... eta azkar asko ezagutuko dituzu! Entzun eta gozatu musika «natural» hau.



Entzuten dituzun soinu guztiak zerrenda batean jaso ditzakezu... edo lagunekin jolas zaitezke! Ea nork asmatzen dituen gehien! Zenbait animalia basatiren soinuak ere utziko dizkizugu, are gehiago ikas dezazun.

*Sabanako soinuak:*

[SONIDOS de la SABANA para dormir !\[\]\(3dfb8d66e81160ad61421a3452093d1b\_img.jpg\) | SABANA música para dormir](#)

*Oihaneko soinuak:*

[Sonido de Lluvia y los Animales del Bosque - HD Lluvia - Relajarse, Dormir](#)

*Animalia basatien soinuak:*

<https://www.youtube.com/watch?v=IJJIT1UrhwI8>



Gure ikuskizunean, soinu horietako asko ere entzungo dituzu, hiriek berezkoak dituzten eta ezagutzen dituzun beste batzuekin batera.

Dena den, ikuskizunak hauxe ere eskainiko dizu, eta asko: MUSIKA!!!



Gorago ikusten dituzun konpositoreek bere garaian konposatu zutena. Baina ikuskizun honetan jo ahal izateko, José López-Montesek berridatzi egin du, agertokian ikusiko dituzuen musikariek jo dezaten, eta, gainera, berak sortutako konposizioren bat erantsi du.

Ez zaude musika zuzenean norik joko duen jakiteko irrikatsu? Oraintxe bertan aurkeztuko dizkizugu!



# ¡MÚSICA!

## SOLOMIA ANTONYAK



JORGE CAMACHO



MANUEL RALLO



Zer iruditzen zaizkizu? Zer eta abeslari bat, txirulari bat eta pianista bat! Ezagutzen dituzu haien instrumentuak? Badakizu «soinean daramatzaten», abeslariak bezala, edo haiekin nola jotzen duten ikusten duzu?


Azkar batean aurkeztuko dizkizugu, berehala identifika ditzazun eta zuzenean ikusten dituzunean gogoz egin dezazun txalo. Ikuskizun honetan, ez dago inolako engainurik, dena da egiazkoa, mikrofonorik gabe!

### TXIRULA

Nahiz eta hainbat txirula-mota ezagutuko dituzun, kontzertu-txirula nagusiari zeharkako txirula esaten zaio. Izen bitxi hori jotzeko formari zor dio, horizontalean jotzen baita, «zeharka». Zurezkoa izan beharreak metalezkoa izatea harrigarria iruditu ahal zaizu, baina instrumentuaren bilakaera da, orkestran jotzeko egokiagoa izan dadin eta, haren soinua zorrotzagoa izanik, gainerako instrumentuek sortzen duten soinu-hesia zailtasunik gabe zeharka dezan. Hona hemen zeharkako txirularen atal nagusiak:

## INSTRUMENTUAK

### ZEHARKAKO TXIRULA



Soinu zorrotza eta oso bereizgarria du.

Hemen duzu dudarik gabe ezagutzen duzun musika-pasarte bat!

[Badinerie from Suite No. 2 for flute - Johann Sebastian Bach - JP Rampal - YouTube](#)

## PIANOA

Instrumenturik moldakorrenetakoa da, hau da, edozein instrumenturi edo ahotsi laguntzeko balio du, hainbat generotan eta abesti-motatan. Horregatik izendatzen dugu instrumentuen erregea ere.



Antzokietan eta kontzertu-areto handietan, «isats-pianoa» izenekoak jo ohi dute: forma handi eta luzanga duenez, soinu-bolumena handiagoa du eta mikrofonorik behar izan gabe entzun daiteke.

Etxe modernoetarako, antzokiko agertokiak baino txikiagoak izan ohi direnez, piano bertikalak eraiki ziren, «hormakoak» ere izendatuak: txikiagoak izanik, haien bolumena ez da hain handia, baina oso antzera dabilta.



Pianoa hari-instrumentua da, teklak, berez, hari-sistema bat kolpatzen duten palankak direlako; hortaz, tekla bat sakatzeari uzten diozunean, soinua eten egiten da. Pedalak soinuen iraupena aldatzeko edo soinuei eusteko erabiltzen dira, tekla sakatzeari utzi arren. Kaxa harmonikoaren tamainaren arabera, pianoaren bolumena handiagoa da eta soinuek gehiago irauten dute denboran.



Bi esteka hauetan, pianoaren sistemak nola funtzionatzen duen ikus eta entzun dezakezu, baita teklak eta pedalak sakatzean nola dabilen ere:

- ★ [Nola funtzionatzen du isats-pianoak? – 1.zatia \(youtube.com\)](https://www.youtube.com/watch?v=...) ← PULSA CTRL +
- ★ [Nola funtzionatzen du isats-pianoak? – 2.zatia \(youtube.com\)](https://www.youtube.com/watch?v=...) ← CLIC

Eta, hemen, pianorako idatzitako milaka piezetako bat:

<https://www.youtube.com/watch?v=Lk4yxDylfkl&list=RDLk4yxDylfkl>




## GIZA AHOTSA

Azkenik, giza ahotsa! Pertsona batzuen arabera, instrumenturik perfektuena da; beste batzuen ustez, ordea, problematikoena eta zailena... abestea erraza iruditzen zaizu? Eta tonuari eustea? Kontuz, ez fidatu itxurez!

Abeslariak, beste edozein instrumentistak bezala, asko ikasten eta praktikatzeko dute, ahalik eta musika-ildorik onena lortzeko eta, horrela, urte askoan lan egin ahal izateko.

Giza ahotsak tesituraren arabera sailkatzen dira. Hau da, ahotsa zein notataraino iristen zaizun, kanta ditzakezun noten arabera, izen bat edo beste bat jasoko du. Gure kasuan, kantaria sopranoa izango da, emakumezko ahotsen artean gorenera iristen dena edo, musikan diogun bezala, notarik altuenak kantatzen dituena.

Abeslarien instrumentuaren atalez hitz egiten hasita, ahozko ahotsaren berak berdin balio zaizkigu... instrumentua bera delako! Gertatzen dena da kantariak, eta bereziki antzokietan mikrofonorik gabe abesten dutenek, beste gorputz-atal batzuk baliatzen dituztela beren ahotsa askoz indartsuagoa izan dadin eta, ondorioz, mikrofonorik behar ez izateko.



Sopranoaren ahotsa nolakoa den jakiteko, esteka hauetakoren bat entzun dezakezu:

[Lascia ch'io pianga \(Händel's opera Rinaldo\); Voices of Music with Kirsten Blaise, soprano](#)

[Lisette Oropesa sings "Sempre libera" \(La traviata\)](#)

Amaitzeko, «¡Soy Salvaje!» ikuskizunaren mundura hurbiltzeko beste jarduera batzuk utziko dizkizugu, zure etxean lasai egin ditzazun. Oihaneko soinuak entzun bitartean egin ditzakezu!

